



## **ZESTOAKO 'GURUTZE' JUBILATU ETXEAREN TABERNA-ARETOA USTIATZEKO KONTRATAZIOA PROZEDURA IREKIAZ ARAUTZEN DUTEN BALDINTZA EKONOMIKOAK ETA ADMINISTRATIBOAK**

### **I. Kontratuaren helburua.**

Zestoako pentsiodun eta jubilatuak eguneroko beren arteko harremanak, elkarbizitza eta jarduera ezberdinak antolatu, eratu eta burutzeko gune bat da “Gurutze” Jubilatutako Etxea.

Zestoako Udalak, “Gurutze” Jubilatuen Etxearen jabeak, bertako Taberna-aretoa ustiatzeko lehiaketa publikorako deialdia egin du. Taberna-aretoaren ustiaketak honako betebeharrak izango ditu bererekin:

- Taberna-aretoa zaintzea.
- Taberna-aretoaren zerbitzuan zuzenean lotuta dauden instalazio eta tresnak garbitzea.
- Jubilatutako etxeko atezaintza zerbitzua eskaintzea.
- Egin nahi den edozein jarduera edo zerbitzurako izenak, zenbakiak, e.a. hartzea, Jubilatutako eta Pentsionisten Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak hala eskatzen badio.
- Jubilatutako eta Pentsionisten Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak eska liezazkiekeen zerbitzu bereziak (hamaiketako, merienda, e.a.) prestatzeko konpromisoa betetzea.
- Mahairaino janari-edariak eraman ezin dituzten jubilatu edo/eta pentsiodunei behar den bezala laguntzea.
- Kultur Etxeko giltzak eman kultur taldeei, zuzendaria ez dagoenean eta hark hala eskatuz gero.
- Jubilatuen Etxe osoaren garbitasuna (Jubilatu Elkarteen gelak barne) Kultur Etxeko aurre aldeko goiko leihoak ezik.
- Kultur Etxe atzeko eskola txikiko jangela zerbitzua eskaintzea.

### **II. Kontratuaren izaera juridikoa.**

Azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 93.1 artikuluen arabera (Administrazio Publikoen Ondareari buruzko legea), konkurrentzia araubidea erabili behar da jabari publikoko ondasunen emakidetan. Beraz emakida hau jardunbide ireki bidez egingo da, Arlo Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratuko 138, eta 157tik 161ra arteko artikuluetan xedatua datorrenaren arabera, eta hala nahi duten eta horretarako gaitasuna eta kaudimena dituztenek beren proposamena egin ahal izango dute. Ez da inolako negoziatorik onartuko emakidaren baldintzetan.

### **III. Epea.**

Kontratuak urtebeteko indarra izango du formalizatzen den egunetik kontatzen hasita. Urtero berritu ahal izango da, beti ere, edozein alde ez badu idatziz eta berariaz kontraktorik adierazten. Adierazpen hori gutxienez kontratuaren amaiera eguna, edo lehen luzapenaren



amaiera eguna baino hiru hilabete lehenago egin beharko da. Guztira, kontratua gehienez ere 5 urtera arte luzatu ahal izango da kontratu aldia eta luzapenak kontuan hartuta,

Kontratuaren epea, edo dagokion luzapenarena, amaitzeko ordua iritsitakoan, -edo kontratua aurrez suntsiarazi bada kontratua bete ez delako edo alde biak ados jarri direlako-, Udalbatzarrak egoki iritziz gero, eta zerbitzua ematen jarraitu ahal izatea bermatzeko, esleipendunak konpromisoa hartzen du zerbitzua ematen jarraitzeko berriz ere zerbitzua esleitu arte horretarako aukeratutako prozeduraz, edo gehienez ere 3 hilabetez, kontratua erabakiko duen udal akordioaren egunetik hasita. Epe horretan, indarrean zeuden kontratu baldintza berak ezarriko dira.

#### **IV. Mugak.**

Emakidak jabetza eskubidea salbuesten du, hirugarrenen kalterik gabe, eta ez dakar lagapenik, ez jabari publikoarena ezta lursailaren jabetza ahalmenena ere. Emakidunak berak erabili beharko du eraikina, eta ezin izango du emakida guztiz edo partzialki laga edo kargatu, ezta eraikina hirugarren bati laga ere, guztiz edo partzialki eta edozein tituluren bidez, baldin eta bi baldintza hauek betetzen ez baditu: Udalaren baimen adierazia edukitzea eta lagapen-hartzaileak konpromisoa hartzea agiri honetan ezarritako erabilerak eta xedeak mantendu eta betetzeko.

#### **V. Esleipendunak ordaindu beharreko prezioa.**

Esleipendunak, kontraprestazio modura, zerbitzua ustiatzerakoan lortzen dituen diru-sarrerak jasoko ditu.

Kanona. Udalari ordaindu beharreko kanona esleipendunak bere proiektuan aurkeztu duenaren arabera ezarriko da.

Hilero ordaindu beharreko kanona lehenengo lanegunean ordaindu beharko da Udalak emandako kontu korrontean. Horrela ez balitz, zordundutako kopuruak legezko interesak sortuko ditu ordainketa egin arte. Kanona epe barruan ez ordaintzeagatik, eta baldintza agiri honetan ezarritako beste ondorioen kaltetan gabe, epez kanpoko kanon-ordainarazpena egiteko Udalak behartze-bidera jo ahal izango du, eta zerga baliabideen ordainarazpenerako legezko errekarguak ezarri. Era berean, behin betiko bermetik kentzeko aukera ere izango du.

#### **VI. Ordutegia.**

Funtzionamendu ordutegia esleipendunak proposamenean eskainitakoa izango da, eta tabernari dagokionez, lokal eta establezimendu publikoak zabaldu eta ixteko indarrean dagoen legediari egokitu beharko zaio. Nolanahi ere, Jubilatutako zerbitzua gutxienez goizeko 11:00etatik gaueko 21:00etara eskaini beharko da (beste aukera batzuk adostu ahal izango dira udala eta esleipendunaren artean, Jubilatutako eta Pentsiodunen elkartearen iritzia entzun ondoren).

#### **VII. Proposamenak aurkeztea: aurkezteko lekua eta epea, betebeharrak eta agiriak.**

Lizitatuzaileak.- Zuzenbideko eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta Arlo Publikoko Kontratuen Legearen (LCSp) testu bateratuko 60. Artikuluan adierazitako kontratatzeko debekuren batean sartuta badaude.



Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkarien bidez kontratatuko balute, beranaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, horrek ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeko gaitasunik eza sortzen duten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Horrez gain, lizitatuzaileek kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresariala edo profesionala izan beharko dute.

Espedientea.- Lehiaketa honetarako espedientea, Baldintza Administrazioen eta Betebehar Teknikoen orriekin batera, Zestoako Udaletxeko Erregistroaren bulegoetan aztertu ahal izango da, 10:00etatik 13:00ak arte, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren ondorengo lanegunetik hasita.

Aurkezteko lekua eta epea.- Proposamenak Zestoako Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira eskura, 10:00etatik 13:00etara, 30 egun naturaleko epean iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertzen den biharamunetik kontatzen hasita. Eskaintzak aurkezteko azken eguna larunbata edo egun baliogabea balitz, epea hurrengo egunera arte luzatuko da.

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkezten diren proposamenak, nahiz eta postetxean epea amaitu baino lehen sartu zirela agertu. Hala ere, proposamena onartu egingo da, baldin eta epe barruan bidali zela egiaztatzen bada. Horretarako, lehiatzaileak, proposamena bidaltzen duen egunean bertan, posta-egiaztagiria bidali beharko dio kontratazio-organoari telekopiaz, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz. Posta elektronikoz bidaliko balu, baliozkoa izan dadin, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Araudi Orokorren 80.4. artikuluan ezarritakoa bete beharko du.

Betebeharrak.- Lizitazioan parte hartzeko eskaintzak gutun-azal itxi batean aurkeztu beharko dira. Gutun-azalean lizitatuzailearen sinadura, jakinarazpenak egiteko helbidea, eta sobrearen izena eta honako testu hau jarri beharko dira: "Zestoako Gurutze Jubilatuen Etxeko taberna erabili eta ustiatzeko esleipenari dagokion lehiaketan parte hartzeko proposamena".

Gutun-azalean sartu beharreko agiriak originalak edo kopia eskuetsiak izan beharko dira indarrean dagoen legearen arabera.

Lizitatuzaile bakoitzak soilik proposamen bat aurkeztu ahal izango du. Era berean, ezingo da izan proposamena egiten duen aldi baterako elkarteko kide batekoa, berak bere kontura proposamenik egin badu edo aldi baterako elkarte bat baino gehiagotan aurkezten bada.

Gutun-azal barruan ondorengo agiriak sartu beharko dira:

- a) Enpresaburuaren pertsonalitatea eta, hala badagokio, proposamen egilearen ordezkariak egiaztatuko duen agiria edo agiriak; hain zuzen ere, honako hauek:
  - Pertsona fisikoak edo enpresaburu bakarrak direnean, lizitatuzailearen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia administrazio publikoaren ordezkariak duen norbaitek konpultsatuta, eta enpresaburua pertsona juridikoa denean Merkataritza Sozietatea eratzeke eskritura Merkataritza-erregistroan behar bezala inskribatuta.
  - Udaletxeko idazkari-abokatuak, zerbitzu juridikoek edo lurraldeko profesionalen elkargoaren eremuan diharduen abokatu batek askietsitako ahalmena beste baten ordezkotzan aurkeztutakoan.



- Lizitazioan hainbat enpresek aldi baterako enpresa-elkartea osatuz gero, horietako bakoitzak egiaztatu beharko du bere pertsonalitatea eta gaitasuna, eta bertan jasoko dira proposamena egiten duten enpresaburuen izenak eta egoerak, bakoitzaren parte hartzea, eta kontratua indarrean dagoen bitartean Administrazioaren aurrean elkartearen ordezkari izango duen pertsonaren edo erakundearen izendapena. Era berean, esleipendun izanez gero aldi baterako enpresa-elkartea legez osatzeko konpromisoa adierazi beharko da.
  - Ordezkotza egiaztatuko duten agiriak, hala badagokio: beste baten izenean agertu edo eskaintzak sinatzen dituztenek notarioak egindako ordezkotza ahalmenaren kopia Udaletxeko idazkariak askietsita. Lizitatzailerak pertsona juridikoa balitz ahalmen hori merkataritza-erregistroan agertu beharko da, legez horrela eskatu behar denean. Halaber, ordezkotza egiteko askietsitako ahalmena duen pertsonak, bere nortasun agiri nazionalaren fotokopia aurkeztu beharko du administrazioak konpultsatuta edo notarioaren lekukotzarekin.
  - Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko akordioa sinatu duten estatuetakoen enpresa ez espainiarrek jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute Herri Administrazioetako Kontratuetakoen Araudi Orokorreko I eranskinean aipatzen diren erregistroetako batean izena emanda egotearen ziurtagiria edo zinpeko aitortza aurkeztuz. Gaitasuneko enpresaburu atzerritarrek dagokion estatuan Espainiak duen ordezkari diplomatikoak egindako txosten bidez ziurtatu beharko dute jarduteko gaitasuna. Txosten horretan azaldu beharko da tokiko erregistroan, erregistro profesionalean, merkatalean edo antzerakoan izena emanda daudela, edo horrelakorik ezean, kontratu honetako helburu diren ekintza arloan herrialde horretako tratuan ohikotasunez aritzen direla.
- b) Behin-behineko bermea jarri izana egiaztatzeko frogagiria.
  - c) Lizitatzaileraren ardurapeko aitortza. Bertan adierazi beharko du ez duela azaroaren 74ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateginean adierazten diren kontratatzeko debekurik.
  - d) Laneko egoera, ondo egiaztatua.
  - e) Jubilatuen Etxeko taberna-aretoa ustiatzeko proposamena. Lizitatzailerak memoria bat aurkeztu beharko dute Jubilatuen Tabernan eskainiko luketen zerbitzua zehaztuz (plangintza, jubilatuei zer eskainiko dieten, taberna dinamizatzeke zein ekimen antolatuko dituzten, ...). Proposatzen diren ekintzak zehaztu beharko dira.
  - f) Lehiakideak hilean ordaindu beharreko kanonari buruz proposaturiko eskaintza ekonomikoa (lehiakide berak proposatu beharko du ordainduko lukeen kanonaren zenbatekoa).
  - g) Zerbitzua emateko jarritako giza baliabideak eta baliabide materialak zehaztea; hala bada, gaitasun klausulan jarritako gutxiengoak gaindituz, eta zerbitzua emango duten pertsona kopurua, beraien lanbide-prestakuntza eta esperientzia jarritz.
  - h) Kontratuaren helburuaren antzerako lanetan izandako esperientziaren gaineko zinpeko aitortza.

Lizitatzailerak baldintza-agirian ezarritako irizpideen arabera eskaintzak baloratzeko egoki deritzoten behar beste agiri aurkeztu ahal izango dituzte.



Ez dira onartuko honako kontraesan, omisio, akats edo ezabaketaren bat duten proposamenak, eskaintza kontuan hartzeko Administrazioak funtsezkotzat jotzen duena argi eta garbi jakitea eragozten badute. Halaber, ez dira onartuko aztertutako eta onartutako agiriekin bat ez datozen proposamenak.

### **VIII. Kontratazio Mahaia.**

Kontratazio Mahaia honako hauek eratu edo osatuko dute:

- a) Lehendakaria: Jose Frantzisko Mendizabal, Zestoako Udaleko alkatea (Ordezkoa: Maria Jesus Aizpurua, zinegotzia).
- b) Mahaikideak: Gorka Unanue, alkateordea (Ordezkoa: Tomas Odriozola, zinegotzia); Mikel Arregi, zinegotzia (Ordezkoa: Aitor Zuzuarregi); Irati Peñagarikano, Udal Brigadaren koordinatzailea (Ordezkoa: Nora Palmitano, Euskara teknikaria).
- c) Idazkaria: Ander Cestona, Zestoako Udaleko idazkaria (Ordezkoa: Jaione Ostolaza, udal administraria).

Aurkeztutako eskaintzen azterketa eta ebaluazioa Zestoako Udaleko Kultura Batzorde Informatzaileak egingo du.

### **IX. Agiri orokorren kalifikazioa, konpon daitezkeen akatsak.**

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta gutun-azalak zabaldu baino lehen, Kontratazio Mahaiak epean eta moduan aurkeztutako gutun-azaletako agiriak kalifikatuko ditu bilkura pribatuan.

Aurkeztutako agirietan akats materialik aurkituko balu Mahaiak, ahoz jakinaraziko die interesatuei eta gehienez ere 3 eguneko epea emango zaie lizitatzailerari akatsa konpontzeko. Lizitatzaileraren batek aurkeztutako agiriek funtsezko akatsik edo konpon ezinezko akats materialik balute, ez dira lizitaziorako onartuko.

Aurreko paragrafoan aipatutako konponketez gain, Kontratazio Mahaiak aurkeztutako ziurtagirien eta agirien gaineko beharrezkotzat jotzen dituen azalpenak edo beste agiri osagarriak aurkezteko eskatu ahal izango dizkie lizitatzailerari beraien gaitasuna egiaztatzeko. Eskari hori gehienez ere 5 egun naturaleko epean bete behar izango da, eta beti ere proposamenak onartzeko adierazpena egin baino lehen.

Aurkeztutako agiriak aipatutako bilkura pribatuan, edo hala behar izanez gero, akatsen bat konpontzeko agiri osagarriak aurkeztu behar izan direlako Kontratazio Mahaia osatzeko egindako bilkura berrian baloratuko dira.

Ondoren, ebazpen bidez Alkateak erabakitako, eta lizitatzailerari zuzenean jakinaraziko zaien eta kontratatzailearen profilean eta iragarki oholtzan adieraziko den egunean, lizitatzailerak A gutun-azalean aurkeztutako agirien kalifikazioaren emaitzak jakinaraziko dira ekitaldi publikoan. Bertan adieraziko dira baztertutako lizitatzailerak eta bazterketaren arrazoiak. Bertaratuek oharrak egiteko aukera izango dute eta horiek aktan jasoko dira. Ondoren, ekitaldi publiko horretan B gutun-azaletako “eskaintza teknikoak” agiriak irekiko dira, beraien edukia azaldu, eta bertaratuek aukera izango dute gainontzeko B gutun-azaletako agirien edukia aztertzeko.

Bertaratzen diren lizitatzailerak aukera izango dute, egoki iritziz gero, egindako ekitaldiaren gaineko oharrak edo erreserbak egiteko. Ohar eta erreserbak idatziz egin beharko dira gehienez ere ekitaldi publikoan egin ondorengo bi laneguneko epean, eta kontratazio organoari zuzenduko



zaizkio, zeinak kontratazio mahaiaren txostena jaso ondoren prozedura erabakiko duen kontratua esleitzerakoan aurkeztutako erreklamazioak berariaz erabakiz.

Ekitaldia amaitu ondoren, gertatutakoa fidelki bilduko duen akta jaso eta Kontratazio Mahaiko lehendakariak eta idazkariak sinatuko dute eta baita erreklamazioak edo erreserbak egin dituztenak ere.

Ondoren, eta kontratazio organoari proposamenik egin aurretik, Kontratazio Mahaia eskaintzen azterketa orokorra egingo du. Esleipen proposamenak ez du proposatutako lizitatzaileren aldeko inolako eskubiderik sortzen Administrazioarekiko. Hala ere, kontratazio organoaren esleipena ez datorrenean bat egindako proposamenarekin, erabaki hori arrazoitu beharko du.

#### **X. Lehiaketa esleitzeko oinarrizko irizpideak.**

Lehiaketa esleitzeko oinarrizko irizpideak, honako hauek dira:

Ezinbesteko baldintza: Bezeroak euskaraz zerbitzatzeko gaitasuna izatea. Hori egiaztatzeko, Zestoako Udaleko Euskara Zerbitzuak proba bat egingo die lehiakideei.

- a) Kudeatutako zerbitzuaren bideragarritasuna eta kalitate hobea (erabiltzaileei eskainitako zerbitzu osagarriak, gutxieneko zerbitzuak emateko hobekuntzak, zerbitzua emateko jarritako pertsona kopuru handiagoa). Gehienez, 30 puntu.
- b) Laneko egoera, ondo egiaztatua, titularrarekin batera normalki lan egingo duten pertsonak ere azalduz. Gehienez, 20 puntu.
- c) Jubilatuen Etxe eta antzekoetan taberna eta gisa horretako zerbitzuetan egindako lana, eta oro har eginkizun horietarako prestaketa berezia eskainiko lukeen beste edozein lan. Gehienez, 25 puntu.
- d) Lehiakideak hilean ordaindu beharreko kanonari buruz proposaturiko eskaintza ekonomikoa (lehiakide berak proposatu beharko du ordainduko lukeen kanonaren zenbatekoa). Gehienez, 15 puntu.

#### **XI. Behin-behineko bermea.**

Lizitatzailerek kontratuaren behin-behineko esleipena egin arte beraien eskaintzak gordeko dituztela ziurtatzeko 150 euroko behin-behineko bermea jarri beharko dute. Era berean berme horrek balioko du behin-behineko esleipendunak bere betebeharrak betetzeko behin betiko esleipena eman eta kontratua sinatu arte. Berme hori azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren (Sektore Publikoko Legearen testu bateratua) 96. artikuluan agertzen diren moduetatik edozeinetan eratu ahal izango da.

#### **XII. Behin-behineko esleipena.**

Kontratazio organoak baldintza agiri honetan jasotako irizpideen arabera sailkatuko ditu aurkeztutako proposamenak onenetik txarrenera. Halaber, egoki deritzon bezain beste txosten tekniko eskatu ahal izango ditu eta eskaintza onena aurkeztutako lizitatzaileri egingo dio kontratuaren behin-behineko esleipena.

Kontratazio organoak ezingo du esleitu gabe utzi lizitazio bat baldintza agirian jasotako irizpideen arabera eskaintza edo proposamen onargarriren bat dagoenean. Hala ere,



Administrazioak, behin-behineko esleipena eman baino lehen, kontratua egiteari uko egin diezaioke interes publikoko arrazoiengatik, edo izapidetutako prozedura bertan behera utzi honek konpon ezinezko akatsak dituenean, kasu bietan, lizitazioan parte hartzeak lizitatuzaileei sortutako gastuak ordaindu beharko dizkie.

Kontratazio organoak arrazoitutako erabakiz hartutako behin-behineko esleipena lizitatuzaileei jakinaraziko zaie eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean edo kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Behin-behineko esleipena proposamenak ireki ondoren gehienez ere bi hilabeteko epean egin beharko da.

### **XIII. Behin-behineko esleipendunak aurkeztu beharreko agiri osagarriak.**

Behin betiko esleipena egin aurretik, eta 15 eguneko epean jakinarazpen pertsonala egindako egunetik kontatzen hasita, proposatutako behin-behineko esleipendunak, behin betiko bermeaz gain, honako agiri hauek – originalak edo konpultsatutako fotokopiak- aurkeztu beharko ditu:

- a) Pertsona juridikoak diren enpresen jarduteko gaitasuna, eratze edo aldaketa-eskrituraren aurkezpenaren bidez egiaztatuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, inskripzio hori egitea derrigorrezkoa baldin bada, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribatuta egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jarduera gidatzen duten arauak. Enpresa indibidual bat aurkezten denean lizitaziora, beraren edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, pertsona fisikoak direnean. Honez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea.
- b) Enpresa lizitatuzaileak kontratatzeke debekurik ez duela egiaztatzen duen dokumentazioa, Arlo Publikoko Kontratuen Legearen (LCSP) testu bateratuko 60. artikulua arabera.
- c) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bete direla adierazten duten ziurtagiriak, kasu bakoitzean eskumena duten organoek emanak, Administrazio Publikoko Kontratuen Arautegiaren 13, 14, 15 eta 16. Artikuluetan aurreikusitako moduan eta ondorioetarako.
- d) Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda egotea zerbitzua eman beharreko ekitaldian eta egoitza fiskalean edo lekuan. Horrekin batera eta horren osagarri, aipatutako zergako matrikulan baja ez eman izanaren ardurapeko aitorpena. Zerga hori ordaintzetik salbuetsita egonez gero, aipatutako zergako matrikulan baja ez eman izanaren ardurapeko aitorpena aurkeztu beharko du eta salbuespen kasua adierazi.
- e) Esleipenduna aldi baterako enpresa-elkartea baldin bada, enpresa-elkartea eratzeko eskritura publikoa aurkeztu beharko du. Halaber, elkartekide bakoitzak Ogasun eta Gizarte Segurantzaren gaitetako ziurtagiriak eta Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren gaineko agiriak aurkeztu beharko ditu.
- f) Kaudimena: Emakida honetan eskatzen den kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzea, honako hauen bidez: 1) Ekonomia eta finantza kaudimena, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 75. artikulua zehaztutako edozein bidetik egiaztatuko da. 2) Gaitasun tekniko eta profesionala, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 75. artikulua zehaztutako edozein bidetik egiaztatuko da.



- g) Behin betiko bermea jarri izanaren ziurtagiria.
- h) Baldintza agiri honetan betebeharr bezala eskatzen diren aseguru polizak egin eta ordaindu dituela egiaztatzen duten agiriak.
- i) Elikagaiak erabiltzeko agiria. Agiria hori eduki ezean, hiru hilabeteko epea izango du Udaletxean aurkezteko.

#### **XIV. Behin betiko bermea.**

Kontratuaren behin-behineko esleipena jaso duen lizitatuzaileak kontratazio organoaren esku jarri beharko du 600 euroko behin betiko bermea. Berme hori azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren (Sektore Publikoko Legearen testu bateratua) 96. artikuluan agertzen diren moduetatik edozeinetan eratu ahal izango da.

Kontratuaren behin-behineko esleipendunak jakinarazpena jasotzen duen egunetik kontatzen hasita 15 eguneko epea izango du bermea jarri duela egiaztatzeko. Betebeharr hori ez badu betetzen berari lepora dakiokkeen arrazoiengatik, Administrazioak indargabetzat joko du egin zaion behin-behineko esleipena, eta behin-behineko esleipena egingo zaio esleipendunaren hurrengo lizitatuzaileari edo hurrengo eskaintzen sailkapenaren hurrenkeran.

#### **XV. Behin betiko esleipena.**

Behin-behineko esleipendunari aurreko baldintzan aipatutako agiriak aurkezteko epea amaitu ondorengo hamar laneguneko epean; eta beti ere, behin betiko bermea jarri eta aurkeztu baldin bada, eta Kontratazio Mahaiaren agiriak jaso eta dagozkion txosten teknikoak bideratu ondoren, kontratazio organoak kontratua behin betirako esleitzeko erabakia hartuko du.

Behin-behineko esleipendunari, beharrezko baldintzak ez betetzeagatik behin betiko esleipenik ez egitea bidezkoa denean, eta deialdi berri bat egin baino lehen, Administrazioak behin-behineko beste esleipen bat egin ahal izango dio zerrendako bigarren lizitatuzaileari edo ondorengoei, eskaintzen sailkapenaren hurrenkeran; beti ere, horrela egiterik balego eta esleipendun berriak bere oniritzia emango balu. Horrela balitz, hamar lanegunetako epea emango zaio SPKLko 135.4 artikuluko bigarren paragrafoan ezarritakoa bete ahal izateko.

Behin erabakiz gero behin betiko esleipena, lizitazioan parte hartu dutenei jakinaraziko zaie eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da erabakiaren ondorengo 48 eguneko epean.

#### **XVI. Kontratua formalizatzea.**

Behin betiko esleipenaren jakinarazpena jasotzen duen egunetik hamar laneguneko epean sinatu beharko du esleipendunak kontratua formalizatzeko dokumentu administratiboa. Dokumentu horri atxikituko zaizkio eta kontratuaren zati izango dira esleipendunaren eskaintza eta baldintza ekonomiko-administratiboaren agiria bere eranskinekin behar bezala konpultsatuta.

Kontratua formalizatuko den dokumentua administratiboa izango da edozein kasutan, eta nahikoa titulu izango da edozein erregistrora jo ahal izateko.

Esleipendunari dagozkion arrazoiengatik ezingo balitz formalizatu kontratua aipatutako epe barruan, Administrazioak kontratua erabaki ahal izango du Herri Administrazioetako





Kontratuetoako Araudi Orokorreko 109. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera. Kasu horretan, bermeaz jabetuko da, eta lizitatzailleak sortutako kalte-galerak ordaindu beharko ditu.

### **XVII. Martxan jartzeko epea.**

Behin-behineko esleipena jakinarazten zaion egunetik hasita hurrengo 15 egunen barru, eta esleipendunak behin betiko bermea ordaindu eta eskatutako agiriak aurkeztu ondoren, Udalak esleipendunaren esku jarriko ditu kontratua sinatzerakoan zehaztutako zerbitzua emateko beharrezko instalazioak eta tresnak inolako zama eta kargarik gabe eta erabilera baldintza egokietan.

Zerbitzua martxan jartzeko gehieneko epea hogeita hamar egunekoa izango da behin betiko esleipena jakinarazten den egunetik kontatzen hasita.

### **XVIII. Esleipendunaren oinarrizko betebeharrak.**

Esleipendunaren oinarrizko betebeharrak honako hauek izango dira:

- a) Kontratuaren helburu den zerbitzua ematea. Horretarako, zerbitzua martxan jarri beharko du hamabost eguneko epean behin betiko esleipena jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasita.
- b) Lana aipatutako jubilatuen etxean egitea, eta jubilatutako etxea jendearentzat zabalik eta dituen zerbitzu guztiak emateko moduan edukitzea goizeko 11:00etatik gaueko 21:00etara, ondoren zehazten diren kasuetan izan ezik:
  - Astean egun batean atsedena hartu ahal izango du.
  - Astean beste egun batean lanordu erdiko atsedena hartu ahal izango du.
  - Hilabeteko oporraldia hartu ahal izango du, gutxienez bi zatitan banatuta. Oporraldiaren egutegiari dagokionez, udala eta esleipendunaren artean adostuko da, Jubilatutako eta Pentsiodunen elkartearen iritzia entzun ondoren.
  - Gutxienezko ohiko ordutegiari dagokionez, beste aukera batzuk adostu ahal izango dira udala eta esleipendunaren artean, Jubilatutako eta Pentsiodunen elkartearen iritzia entzun ondoren.
- c) Esleipendunak aurrez jakinarazi beharko dio Udalari eta Jubilatutako eta pentsiodunen Elkarteari aipatu atsedena eta oporren egutegia.
- d) Esleipendunari kanpotik bazkari, merienda, afari edo beste zenbait ekitaldi eskatzen bazaizkio, une berezi horietan jubilatutako eta pentsiodunek ez dute lehentasunik izango.
- e) Atezaintzako eginbeharrei dagokionean, lokaletako sarrerak zainduko ditu, eta horien segurtasuna eta itxiera eta irekitzeaz arduratuko da; horien giltzak gordeko ditu, beroien ardura izanik eta bertako ordenari begiratuko dio.
- f) Taberna aretoko lokal, instalazio eta tresnak egunero behar bezala garbitu beharko dira, jendearentzako irekita dauden orduetatik kanpo. Bestalde, urtean bi aldiz, udalak berak garbituko ditu Jubilatutako Etxeko leihoak.
- g) Edozein arrazoi delarik ere, esleipendunak zerbitzua eman ezingo balu, Jubilatutako eta Pentsiodunen Elkarteak bulegoetara sartzeko aukera izan beharko du, baita tabernaren



egonlekua erabiltzeko ere. Horrelako kasuetan, Jubilatzen eta Pentsiodunen elkarteak lokala egoki zaintzeko konpromisoa hartuko du.

- h) Esleipendunak berak zuzenean betetzea kontratu honetan berari ezarritako egiteko guztiak. Ez du izango inolako lan loturarik ez Udalarekin ez Jubilatuen Etxearekin, eta modu berean, ez dute inolako loturarik izango esleipendunak kontratatu ditzakeen langileek. Esleipendunak langilerik kontratatuko balu, horiek Gizarte Segurantzako kide egitea bere kontura izango da.
- i) Gizarte Segurantzako autonomoen erregimen berezian alta ematea jarduerari dagokion Ekonomia Jardueren gaineko Zergan, eta baita dagozkion autonomia edo udal zerga eta tasak ordaintzea ere.
- j) Esleipenaren titularrari beste batek ordezkapena egiteko baimena eman ahal izango da, baina, bakarrik atsedean egunetan eta urteko oporraldian egin ahal izango da ordezkapena. Baimena eman ahal izateko aurrez eta behar besteko denboraz jakinarazi beharko zaio Udaleko Kultura Batzordeari eta Jubilatuen Etxeko arduradunari. Ordezko pertsona kontratatzea eta Gizarte Segurantzaren alta ematea esleipendunaren ardura izango da, eta ez du izango inolako lan loturarik Udalarekin edo Jubilatuen Etxearekin.
- k) Jubilatuen Etxeak eta Udalak ezarritako duten prezioen tarifa erabiliko du, eta ondo ikusteko lekuan jarri horren zerrenda. Bestalde, Jubilatuen Etxean jubilatzen ez den beste edozein sar litekeenez, esleipendunak bere esku dauka herriko tabernetan ezarritako dauden prezioak kobratzea, Udaleko Kultura Sailaren oniritzia baldin bada. Horien zerrenda ere ondo ikusteko moduko lekuan jarriko da.
- l) Tabernan jarriko diren kartel, ohar, prezio zerrenda eta antzekoak bi hizkuntza ofizialetan jarri beharko dira, beti ere euskarari lehentasuna emanez.
- m) Instalazioak zaindu eta funtzionamendu, garbitasun eta higiene egoera onean edukitzea kontratuaren indarra amaitzeagatik berari atxikitutako eta beharrezko instalazioekin batera Udalarari itzuli behar arte. Esleipendunak behartuta dago ustiatetan sor daitekeen edozein arazo, eta orokorrean, erakina hondatzeko arriskua sor dezakeen edozein gorabehera udal zerbitzu teknikoaren jakinean idatziz jartzera. Horrek zerbitzua itzultzea ekar dezake, sortutako arazoaren arabera esleipendunaren erantzukizuna frogatzen bada.
- n) Kontratuak dirauen bitartean, hondatutako tabernako materialak eta tresnak konpondu eta ordezkioak jartzei dagokionez, eta baita Taberna-aretoen instalazioak, lokalak eta komunak (komuneko papera eta gainontzekoak) garbitzeko beharrezko garbigarri eta tresnen gastuak ordaintzei dagokionez ere, esleipendunaren kargura joango dira:
  - Lagapenaren denboran tabernako lanean hondatzen den materiala aldatu eta berritzea.
  - Lagapenaren denboran tabernako tresnek izan ditzaketan matxurak konpontzea (matxuraren arazoia edozein izanda ere). Esleipendunak berak ordaindu beharko ditu, matxura bakoitzean, 200 euro arteko konponketak.
  - Garbitasuneko lanen eta gaien gastuak ordaintzea.
  - Tabernako aparailuen zaintza.
  - Tabernako azpiegituraren mantentze-lan orokorrak (bonbillak, pertsianak, atek, altzariak...).



- o) Kontratuak dirauen bitartean esleipendunak zerbitzu arduratsua eskaintzea, eta une oro horren gainean Udalak emandako arauak betetzea. Era berean, establezimendu publikoetarako ematen diren osasun-elikagai izaerako arau eta xedapen guztiak betetzea.
- p) Taberna barruan sortutako zarata mailak lokalaren ezaugarrien arabera legez jarritako mugak ez gainditzeko beharrezko neurriak hartzea. Horretarako, musika aparatua eta zarata ateratzen duen beste edozer gauzaren maila kontrolatu beharko du.
- q) Esleipendunak ezingo dio zerbitzua erabiltzea ukatu arauzko betebeharrak guztiak betetzen duen edozein pertsonari.
- r) Esleipenduna pertsonari edo gauzei sortzen zaizkien kalteen erantzule izango da, baita Udalaren menpeko edo jabegokoak izanda ere, bere jardueraren ondorio baldin badira kalte horiek. Hori dela eta, emakidak irauten duen denborarako, beste batzuen aurrean erantzukizun zibiletik babesten duen poliza egin beharko du. Poliza hori ez da 300.000 euro baino gutxiagokoa izango eta, besteak beste, lapurreta eta erantzukizun zibila aseguratuta beharko ditu. Udalak, berriz, lokala eta instalazioak egoki irizten diren kopuruetan aseguratuta beharko ditu. Esleipendunak beregain hartuko ditu primak ordaintzea eta Udaletxeko Idazkaritzan aurkeztu beharko ditu bai kontratatutako polizen kopiak bai ordainagirien justifikazioak.
- s) Ez besterentzea eta ez kargatzea Udalari itzuli beharreko instalaziorik edo ondasunik.
- t) Ustiaketa berak egitea eta ez lagatzea osorik edo partzialki, eta ezta eskualdatzea hirugarrenen bati aurrez Udalaren berariazko eta idatzizko baimenik gabe.
- u) Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta eman, eta dagozkion autonomia, probintzia edo udaleko zergak ordaintzea. Era berean, Gizarte Segurantzako eta laneko Seguratasun eta Higiene betebeharrak egunean izan beharko ditu bai esleipendunari dagokionez bai berarentzat lanean dihardutenei dagokionez.
- v) Instalazioak beste jarduera batzuetarako ez erabiltzea. Baimena beharko du edozein edari edo goxoki makina jartzeko eta baita txanpon-makinak jartzeko ere.
- w) Esleipendunak debekatuta izango du txartel, makina edo publizitateko iragarkiak jartzea edota obrarik egitea Udaleko Kultura Sailaren baimena jaso gabe. Edari alkoholdun eta tabakoa dela eta, Kultur Etxeko Araudi Orokorra eta indarrean dauden gainontzeko lege eta araudiak bete beharko ditu.
- x) Kultur Etxeko eraikuntza osoan indarrean dagoen Prebentzio eta Seguratasun Plana eta han ezartzen zaizkion ardurak bete beharko ditu.

### **XIX. Esleipendunaren eskubideak.**

Esleipendunaren eskubideak honako hauek dira:

- a) Zerbitzurako beharrezkoak diren udal instalazioak eta ondasunak erabiltzea.
- b) Erabiltzaileei emandako zerbitzuagatik jaso beharreko ordainsariak jasotzea.

### **XX.- Udalaren eskubideak eta eginbeharrak.**

- a) Udalaren eskumena da kontratua interpretatzea eta kontratua betetzearen gainean sortutako zalantzak erabakitzea.



- b) Jubilatutako Etxearen mantentze-lanei dagokionez, Udalaren kargura joango dira:
- Argindarra, ura eta berogailuaren gastuak.
  - Lagapenaren denboran tabernako tresnek izan ditzaketen matxurak konpontzen lagunduko du, beti ere, esleipendunaren engainu, erru edo arduragabekeria edo/eta gaizki erabiltzeagatik hondatu ez direnean, matxura bakoitzean 200 eurotik gorako gastua Udalak bere gain hartuz.
  - Altzari, makina, e. a. berriak erostea, beti ere, konpondu ezin direnean eta esleipendunaren engainu, erru edo arduragabekeria edo/eta gaizki erabiltzeagatik hondatu ez direnean.
- c) Udalak beretzat gordetzen du emakida amaitu baino lehen emakida berreskuratzeko eskubidea, -dagozkion legezko ondorioekin-, interes publikoko beharrak horrela justifikatzen baldin badute.
- d) Era berean, Udaleko Kultura Sailak lokalaren funtzionamendua zaindu eta kontrolatzeko eskubidea izango du (barruko ordena, zer ordutan ireki eta ixten den, lokal eta zerbitzuen garbitasun eta baldintza sanitarioak) eta behar den informazio eta dokumentazioa eska liezaioke esleipendunari jardura horrek sortzen dituen eginbehar guztiak betetzen direla egiaztatzeko. Hori dela eta, Udalak Jubilatuen Etxeko leku eta instalazio guztietara sartzeko eskumena izango du.
- e) Nolabaiteko akatsik antzemango balitz, behar den akta egingo litzateke, eta lehenengo aldia idatziz ohartaraziko zaio eta leudekeen kalteak ordaintzera behartu; bigarren aldia, ordea, kontratua hautsiko da eta esleipendunak, inolako eskubiderik gabe, lokaletik alde egin beharko du hango tresnak bertan utzirik. Erantzukizunak sortu baditu, horien pean ere geratuko da.
- f) Edozer dela ere Udalak aldi baterako edota amaiera jakinik gabe zentroa itxiko balu, esleipendunak ez du kalte-ordainik ez inolako konpentsaziorik jasotzerik izango.
- g) Lokaletik alde egingo ez balu, sor lezakeen erantzukizun penalaz gain, Udalak bere edozein organo dela medio alde egitera behartzeko bortxa eta premiamenduzko neurriak erabili ahal izango ditu.
- h) Udalak ez du erantzukizunik izango esleipendunak bere hornitzaileei ez ordaintzeagatik ez eta instalazioetan izan daitezkeen lapurreta eta kalteengatik ere.
- i) Arau hauetatik kanpo sor daitezkeen egoeraren ardura Udalari dagokio eta jubilatutako direnez guzti honetan azken subjektu zuzenak, berauek ordezkatzeko dituen batzordea entzuna izan beharko da eta edozein aldaketaren berri Jubilatutako Batzordeko lehendakariari jakinaraziko zaio, aurreikusitako betebeharrak, ospakizun edo beste motatako zereginetan eragozpenik sor ez dezan; azken batean, bere helburuak bete eta burutzeko eragozpenak edukitzea.

## **XXI. Arau-haustek eta zigorrak.**

Arau-haustek arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke:

- a) Arau-hauste arinak honakoak izango dira:
- Esleipendunak lokalaren funtzionamenduan betebeharreko jolasezko jardueretarako lokal eta establezimenduak zabaltzeko eta ixteko ordutegian



izandako atzerapenak, eta Taberna-aretoko instalazioak eta komunak egoera egokian ez zaintzea.

- Ez onartzea bere borondatez eta arrazoi zuzenik gabe udal zerbitzu teknikoen ikuskaritza.
- Erabiltzaileei tratu okerra edo ez egokia ematea.
- Ezarritako betebeharrak ez betetzea, horiek arau-hauste larri edo oso larritzat ez badira jotzen.

b) Arau-hauste larriak honakoak izango dira :

- Ezarritako aseguru polizak ez ordaintzea.
- Administrazioaren aginduak ez betetzea.
- Zerbitzuak dakarren tasak eta zergak ez ordaintzea.
- Laneko, Gizarte Segurantzako, eta laneko Segurtasun eta Higiene arloko xedapenak ez betetzea.
- Emakidadunak arau-hauste arinak dakartzaten ekintzak behin eta berriz errepikatzea.
- Erabiltzaileentzako prezioak aldatzea udal baimenik gabe.
- Eraikinen edo instalazioen hondatzea edo balio-galtzea dakartzaten emakidadunaren jokabideak.
- Emakidatutako zerbitzu publikoko instalazioen edo eraikinen ez ohiko erabilera, kanpoko eta barruko zaratak barne.
- Emakidaren helburu ez den jarduera bat egitea zerbitzuan.

Zigorra edozein delarik ere, instalazioetan kalteak egonez gero, eta ez badira izan ezusteko edo ezinbesteko kasuengatik, Administrazioak horiek konpontzera derrigortu dezake.

c) Arau-hauste oso larriak honakoak izango dira.

- Esleipendunaren oinarritzko betebeharren arau-hauste oso larria.
- Arau-hauste larriak behin eta berriz errepikatzea.
- Esleipendunak baldintza agiri honetan ezarritako baldintzetan ez jardutea.

Arau-haustek direla-eta isunen bat jarri beharko balitz, aurrez entzunaldi eta guztiko espediente administratiboa irekita, administrazio publikoetako zigor araudia errespetatuz egingo da.

Edozein kasutan, bi arau-hauste larri edo bat oso larria egiteak kontratua suntsiaraztea ekarriko du, aurrez horretarako espedientea egin ondoren.

## **XXII. Kontratua aldatzea, etetea, amaitze edo suntsiaraztea.**

Emakida azkentzeko arrazoiak izango dira azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 100. Artikuluan jasotakoak (Administrazio Publikoetako Ondarearen Legea). Zehazki:

a) Emakida iraungitzea, haren indarraldia amaitzean.



- b) Eraikina emakidak ezarri duen xederako ez erabiltzea.
- c) Eraikinaren lagapena edo karga, agiri honen IV. atalak ezarritakoa urratuz.
- d) Kanona ez ordaintzea edo agiri honetako gainerako baldintzak eta betebeharrak behin eta berriz ez betetzea.
- e) Udalak emakida garaiz aurretik bertan behera uztea erabakitzea gerora sortutako interes publikoko beharrengatik.
- f) Emakidunak uko egitea.
- g) Eraikinaren desafektazioa.

### **XXIII. Emakidaren amaieraren eragina.**

- a) Kontratuaren indarraldia amaitzen denean, esleipendunak alde egin eta libre utzi beharko ditu, Zestoako Udalaren eskura, Jubilatuen taberna-aretoarekin lotutako lokal eta instalazioak, eta aitortu beharko du Administrazioak bere kabuz kanporatzea erabaki eta betearazteko duen ahalmena. Kontratuaren esleipendunak erantzun beharko du ondasun horretan gertatutako kalte eta galerez, eta horri erantzungo dio horretarako eraturako behin betiko bermearen bidez.
- b) Esleipendunaren ez-betetze errudunaren ondorioz atzera botatzen denean fidantza inkautatu egingo zaio eta, gainera, Administrazioari ordaindu beharko dizkio inkautatutako bermearen zenbatekoaren gainetik leudekeen kalte eta galerak.
- c) Administrazio-kontratuaren bidez sortu diren eskubideak baliogabetzea, edozein delarik ere hori sortu duen arrazoia, administrazio-bidetik egingo da hertsatzeko ahalmenak erabilia, inolako kalte- ordainik ordaindu gabe.
- d) Herriaren intereseko edozein arazoiren ondorioz Zestoako Udalak iritziko balio zerbitzuan atxikitako instalazioak erabili beharra duela, esleipendunak erabat libre utzi beharko du lokala horretarako zehaztutako epean, legokiokeen kalte-ordainaren kalterik gabe.
- e) Emakida ondasunen desafektazioagatik azkentzen denean, haren likidazioa egingoa da, azaroaren 3ko 3312003 Legearen 102. artikulua 2. eta 3. atalek ezarritakoaren arabera (Administrazio Publikoetarako Ondarearen Legea). Obrak eta instalazioak udal administrazioan itzultzeak ez du inolaz ere eragingo lan araudian jasota dagoen enpresa ondorengotza.

Kontratuaren epea amaitutakoan, kontratua sinatzerakoan emandako instalazioak eta inbentarioan jasotako tresnak berez eta besterik gabe Udalari itzuliko zaizkio zamarik gabe eta emandako baldintza berberetan.

Gutxienez kontratuaren epea edo azkenengo luzapena amaitu baino 2 hilabete lehenago, Udalak teknikariak izendatuko ditu, instalazioak eta tresnak zein egoeretan dauden ikuskatzeko, eta ikuskapen teknikoaren emaitzaren arabera, horiek erabilera baldintza egokian gordetzeko beharrezkotzat jotzen diren konponketa eta ordezkioak jartzeko lanak egitea aginduko du. Lanok esleipendunaren kontura izango dira.

### **XXIV. Datu pertsonalen babesa.**

Kontratazio honek datu pertsonaletara sartu beharra ekarriko balu, kontratatzaileak Arlo Publikoko Kontratuen Legearen (LCSP) Hogeita Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian



zehaztuta datozenak bete beharko ditu, Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak jasotzen baitira bertan.

## **XV. Araubide juridikoa.**

Emakida hau, Administrazio Publikoren Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen aginduak Bigarren Azken Xedapenaren arabera oinarritzko izaera dutenak edo aplikazio erabateko edo orokorrekoak direnak, eta ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua, Tokiko Erakundeen Ondasunen Araudia onartzen duena (aurreko aginduak ezeztatzen dituzte).

Adjudikaziorako lizitazioan dagokionez, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu legegilearen 19.1.b) artikulua aurreikusitakoaren arabera. Administrazio kontratua izango da, eta herri-administrazioek kontratazioetarako erabiltzen dituzten ohiko printzipioen arabera arautuko da, eta beti ere kontratazio publikoaren arloan Europako erkidegoen zuzenbideak zehaztutako ohiko printzipioen arabera. Aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat etorritik, ondorengo hauek izango dira kontratua arautuko dutenak:

- a) Baldintza Ekonomiko-Administratibo hauek.
- b) Deialdia eta kontratua egiterakoan eta bi horiek garatzen diren bitartean indarrean Toki-araubideko nahiz Herri-Administrazioen Kontratuak legezko eta arauzko xedapenetan jasotako kontratazio-arauak. Zehazki, ondorengo arauak aplikatuko dira: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak; 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki- Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testua bategina onesten duena; azaroaren 74ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bategina onesten duena; eta arauzko xedapen moduan, 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoaren Kontratuen Legea partzialki garatzen duena, eta 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri-administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onesten duena, aurrekoei kontra egiten ez dien neurrian. Honez gain, apirilaren 7ko 3/2016ko legea ezarriko da, Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan sartzekoa.
- c) Administrazio-zuzenbideko gainerako arauak.

Zuzenbide pribatuko arauak erabili ahal izango dira, ordezko zuzenbide gisa, kontratua interpretatu, bete edo iraungitzerako garaian eta kontratua indarrean dagoen bitartean zalantzak sortu eta zalantza horiek ezin direnean argitu aurreko paragrafoan aipatutako xedapenen bidez.

Edonola ere, zuzenbide pribatuko arauak aplikatzeko administrazioaren eskumenak kontuan hartu beharko dira.

Erabat teknikoak diren gaietan izan ezik, plegu honetako xedapen guztiak espedienteari lotutako gainerako aukerako baldintzen gainetik egongo dira.


## **XXVI. Jurisdikzio eskuduna.**

Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu, eta organoak erabakitakoek administrazio-bideari amaiera emango diote eta administrazioarekiko auzi -errekurtsuetarako epaitegietan zuzenean inpugnazioa jarri ahal



izango zaie. Hala ere, interesatuek Administrazio publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 112 artikuluan aurreikusitako berraztertze helegitea aurkeztu ahal izango dute.

Zestoa, 2018ko otsailaren 15a. Jose Frantzisko Mendizabal Irigoien, alkatea







## **ERANSKINA. Proposamen eredua.**

Eskatzailearen datuak edo enpresaren ordezkariarenak:

Izena: .....  
Helbidea: .....  
Herria: .....  
NAN: .....

Enpresa ordezkatzuz gero, enpresaren datuak:

Enpresaren izena: .....  
Helbidea: .....  
Herrira: .....  
Posta kodea: .....  
Telefonia: .....  
Faxa: .....  
IFK: .....

### **BERE ARDURAPEAN HONAKOA AITORTZEN DU:**

- I.- “Gurutze” Jubilatu Etxeko Taberna-aretoa zeharkako kudeaketaz ustiatzeko kontratazioa egitea helburu duen kontratua esleitzeko lizitazio iragarkiaren berri baduela.
- II.- Baldintza ekonomiko-administratiboen agiria eta kontratu hau arautuko duten gainontzeko agiriak ere ezagutu eta osorik onartu eta bere egiten dituela.
- III.- Lizitatuzaileak edo ordezkatzuz duen enpresak indarrean dagoen araudiak zerbitzua irekitzeko, instalatzeko eta martxan jartzeko eskatzen dituen baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen dituela.

Lehiaketan parte hartzeko interesa dudala, eta baldintza agirian jarritako baldintzen arabera ustiatzeko konpromisoa hartzen dudala, horietatik eta indarrean egon eta zuzenean edo subsidiarioki aplikagarri izan daitezkeen arauetatik sor daitezkeen betebeharrak eta erantzukizunak onartuz

IV.- Ez nagoela Administrazioarekin kontratatzeko ezgaitasun edo bateraezintasun kasuren batean.

V.- Baldintza agirian ezarritako irizpideen arabera eskaintza baloratzeko balio duten merituen ziurtatzeko agiriak aurkezten ditudala.

Zestoa, 2018ko .....(a)ren .....(a)